



Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak ikerketa klinikorako proiektu bat egingo du, "PRAFAI: Predicción de recurrencia de fibrilación auricular con Inteligencia Artificial" (Fibrilazio aurikular errepikatua adimen artifizialaren bidez iragartzea) izeneko, Osakidetzaren "Ikerketa-proiektuak" datu pertsonalen tratamendurako jardueraren barruan.

Proiektua egin bitartean prozesatuko diren datu pertsonalak historia klinikotik dato, eta tratamendu hori ere Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko Dibisioaren ardurapean dago.

Osakidetzaren Tratamendu-jardueren erregistroan –webgunean dago–, aipatutako bi tratamenduei buruzko informazioa eta edukiak kontsulta daitezke, DBEOaren¹ 30. artikulua eta DBLOaren² 31. artikulua araber. Erregistrora sartzeko, joan esteka honetara: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/osakidetza-eus/-/datu-pertsonalen-babesa-osakidetzan/>

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen arabera (32. artikulua. Ikerkuntza sanitarioa), "Euskadiko sistema sanitarioak osasunari buruzko ikerkuntza-jardueren alde egin beharko du, progresatzeko funtsezko elementua da-eta".

Era berean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren xedeen artean dago, besteak beste, osasun-zientziekin loturiko ikerlanak, azterlanak eta zabalkunde-lanak sustatzea, Osasun Sailak ezartzen dituen ildo estrategikoeekin eta programekin bat etorritik, eta arlo horretan eskumena duten unibertsitateekin eta gainerako erakundeekin hitzartzen den lankidetzaren aintzat harturik (3.c artikulua).

Historia klinikoan jasotako datu pertsonalak, funtsean, asistentzia klinikoaren emateko dira, baina aurreikusten da datu horiek ikerketa sanitarioarako erabili ahal izatea (xehetasun gehiagorako, ikusi Tratamendu-jardueren erregistroa, goiko estekan).

DBEOaren 13. artikulua ezartzen du zer informazio eman beharko den datu pertsonalak interesdunarengandik jasotzen direnean. Artikulu horren 3. apartatuan xedatutakoaren arabera, datu pertsonalen geroko tratamendua ez badator bat datuak biltzearen helburuarekin, helburu berri horri buruzko informazioa eta beharrezko iritzitako beste edozein informazio gehigarri helaraziko dio tratamenduaren arduradunak interesdunari, geroko tratamendu hori baino lehenago.

Horixe da dokumentu honen helburua; alegia, jakinaraztea posible dela datu pertsonalak erabiltzea Osakidetzaren ikerketa-proiektuetako datuen tratamenduan aurreikusitako xedearekin, hain zuzen ere:

Ikerketa-subjektuak: Bilbo-Basurtuko ESIan 2015eko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean fibrilazio aurikularra diagnostikatu zaien pazienteak.

Kolektibo horren barruan bazaude edo denbora-tarte horretan Bilbo-Basurtuko ESIan artatu bazaituzte, jarraian jakinarazten dizkizugu DBEOaren 13. artikuluan eta DBLOaren 11. artikuluan eskatzen diren alderdiak:

¹ DBEO: 2016/679 ERREGELAMENDUA (EB), 2016ko apirilaren 27koa, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, zeinak 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duen (datuak babesteko erregelamendu orokorra).

² DBLO: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.



DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA	
Tratamenduaren izena	IKERKETA-PROIEKTUAK
Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak	Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua / Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza – Araba kalea 45 – 01006 Vitoria-Gasteiz Osakidetzako Datuak Babesteko arduraduna: – Araba kalea 45 – 01006 Vitoria-Gasteiz – DBO-DPD@osakidetza.eus
Tratamenduaren xedea	Ikerketa-proiektuak egitea Osasun Sistema Publikoko pazienteekin. OSASUNGINTZA: Ikerketa epidemiologikoa eta antzeko jarduerak. BESTE XEDE BATZUK: Zientzia-, historia- eta estatistika-xedeak.
Datuak gordetzeko epea	Datuak haiek jasotzea ekarri zuen ikerketak irauten duen bitartean gordeko dira, eta, amaitu ondoren, mantendu egingo dira erakunde eskudunek arlo horretan egin beharreko egiaztapenak egiteko eta izan litezkeen erantzukizunei erantzuteko.
Tratamenduaren oinarri juridikoa	Interesdunaren adostasuna. Lege-eginbearra betetzea, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean ezarritakoaren arabera.
Hartzaileak	Ez zaie daturik lagako hirugarrenei, legeak hala agintzen duenean izan ezik.
Eskubideak gauzatzea	Interesdunak datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatzeko, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko eskubideak gauzatu ahal izango ditu idatzi bat zuzenduta Osakidetza - Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza, Araba kalea 45 - 01006 Vitoria-Gasteiz helbidera, NANaren edo beste nortasun-dokumentu baliokide baten kopia erantsita. Era berean, interesdunak hasitako ekintzari uko egiteko eskubidea izango du; horretarako, datu pertsonalen tratamendurako baimena kendu beharko du. Interesdunak, halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa aurkezteko.

Bildutako datu pertsonalen titularrek Datuak Babesteko ordezkariarengana jo ahal dute, erreklamazioa aurkeztu aurretik, organo arduradunaren edo tratamenduaren arduradunaren aurka, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

Gazteizen, 2023ko Martxoaren 14an

Asistentzia Sanitarioko Dibisioa
Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua